



**D2030**

Garapen  
Iraultzaileko  
Sareak

**D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO  
ERAGILEEN ARTEKO  
LANKIDETZA HITZARMENA**

## BILDU DIRA

Alde batek, **Maite Anton Leno**, NA 72748365D duena, **Debagoieneko Mankomunitatea-en** izen eta ordezkartzan, IFZ P2000001D, eta egoitza soziala Nafarroa etorbidea 17, Arrasate 20500-n duena.

Bestetik, **Arrasateko Alkatea, Maria Ubarretxena Cid**, NA 72451129W duena, **Arrasateko Udala-en** izen eta ordezkartzan, P2005900B x, eta egoitza soziala Herriko Plaza Nagusia 1, 20500-Arrasate-n duena.

Bestetik, **Gorka Artola Alberdi**, NA 72581398E duena, **Bergarako Udala-en** izen eta ordezkartzan, IFZ P2007900J, eta egoitza soziala San Martin Agirre Plaza 1-n duena.

Bestetik, **Izaro Elorza Arregi**, NA 15396342G duena, **Oñatiko Udala-en** izen eta ordezkartzan, IFZ P2006300D, eta egoitza soziala Foruen Enparantza, 1 20560 - OÑATI-n duena.

Bestetik, **Markel Olano Arrese, Gipuzkoako Diputatu Nagusia**, NA 72437904W duena, **Gipuzkoako Foru Aldundia-en** izen eta ordezkartzan, IFZ P2000000F, eta egoitza soziala Gipuzkoako plaza. 20004 Donostia-n duena.

Bestetik, **Joxean Alustiza Usandizaga**, NA 15.981.506-W duena, **FAGOR S. COOP.-en** izen eta ordezkartzan, IFZ F-20096525, eta egoitza soziala S. ANDRES AUZOA z/g. 20500 ARRASATE-n duena.

Bestetik, **Oier Araiztegi Aranburu**, NA 78872577-B duena, **Ulma Taldea Koop. E.-ren** izen eta ordezkartzan, IFZ F-20-544326, eta egoitza soziala B° Garagaltza, 51 - Apartado 22. 20560 Oñati-n duena.

Bestetik, **Zigor Ezpeleta Alberdi**, NA 15385383Q duena, **Mondragon Koop. E.-en** izen eta ordezkartzan, IFZ F20350823, eta egoitza soziala Arizmendiarieta Pasealekua, 5. 20500 Arrasate-n duena.

Bestetik, **Iban Arantzabal Arrieta**, NA 72455964F duena, **Goiena Komunikazio Taldea Koop. E.-aren** izen eta ordezkartzan, IFZ F20704375, eta egoitza soziala x-n duena.

Bestetik, **Vicente Atxa Uribe**, NA 15983176Q duena, **Mondragon Unibertsitatea-en** izen eta ordezkartzan, IFZ F20560991, eta egoitza soziala Ioramendi, 4 - 20500 Arrasate-n duena.

Bestetik, **Idurre Albizu Lluvia**, NA 15.394.955C duena, **Garaia Parke Teknologikoa Koop. Elkartea-ren** izen eta ordezkartzan, IFZ F20722930, eta egoitza soziala Gairu Kalea 1 - 20500 Arrasate-n duena.

Bestetik, **Francisco Javier Bikuña Olalde**, NA 72571199N duena, **Saiolan S.A.-ren** izen eta ordezkartzan, IFZ A20580411, eta egoitza soziala Gairu kalea 1, 4. Solairua. 20500 Arrasate-Mondragón-n duena.

Bestetik, **Juan José Ibarretxe Markuartu**, NA 14565884F duena, **Agirre Lehendakaria Fundazioa-ren** izen eta ordezkartzan, IFZ G-95725040, eta egoitza soziala Urkixo Zumarkalea 4-5.solairua, 48008 Bilbaon duena.

## ADIERAZI DUTE

Azken 60 urteetan bizitako eraldaketa sakonari esker **ongizate maila handia** lortu duen bailara batean bizi gara. Nazioartean ikertua eta neurri handi batean miretsia den prozesu komunitario bati esker jendarte ekitatibo, kohesionatu eta aurreratu bat eraikitzen jakin izan dugu, eta garai historiko horrek eman zuenetik bizitzen dihardugu oraindik ere. Baina XXI. mendeak erronka berriak ekarri ditu berarekin, eta zantzu gero eta argiagoak daude aro berri baten atarian egon gaitzkeela adierazten dutenak. **Erronka global eta konplexuen garaia** da bizi duguna, zalantzarik gabe gure bizimodu eta ongizatean inpaktu handia izango dutenak, eta lortutakoa galdu nahi ez badugu, aro berrira moldatzera behartzen gaituztenak.

Nazio Batuen IPCC erakundeak egindako txosten ezberdinek gero eta ageriago uzten dute bizi dugun garai historikoaren larritasuna. **Gizakiak kliman eragindako aldaketek gure zibilizazioa kolapsora eraman dezakete**, eta hamarkada gutxi batzuk baino ez zaizkigu gelditzen garapen eredu sakonki eraldatu eta klima aldaketaren ondorio suntsigarriak leuntzeko. Jada ezin daiteke gelditu, baina oraindik garaz gaude lurrraren beroketa 1,5 graduen azpitik mantendu eta azken 2.000 urteetan gizakiak eraikitakoa ez galtzeko. **Hurrengo hamarkada gakoa** izango da honetarako, hurrengo 10 urteetan hartzen diren edo hartzen ez diren erabakiek baldintzatuko dutelako gure zibilizazioaren etorkizuna.

Krisi klimatikoak garapen eredu berrasmatu eta iraunkortasuna erdigunean jartzera behartzen gaitu: Jada ez da nahikoa balio ekonomikoa sortzea, horretarako balioa soziala edo balio naturala suntsitzen badira. **Garapena iraunkorra izango bada, 3 baldintzak bete behar dira aldi berean: balio ekonomikoa sortzarekin batera balio soziala ere sortzea ingurune naturala kaltetu gabe.**

Gaur egun ditugun erronkak globalak dira, baina tokian toki aurkitu behar zaie soluzioa, tokian tokiko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturaletik abiatuta.

Gure lurraldean, komunitatearen ahalduntzea eta lanaren balio eraldatzailea erdigunean jarrita, aberastasunaren banaketa ekitatiboan oinarritutako lehiakortasun eredu propio eta arrakastatsu bat eraikitzen jakin izan dugu, mundu mailan erreferentzia bilakatu dena. Esan dezakegu bailara honetan **asmatu genuela garapenaren dimentsio ekonomiko eta soziala modu berritzaile batean uztartzen**, eta jakin izan dugula lehiakortasunaren eta lankidetzaren arteko harreman orekatuago bat eraikitzen. XXI. mendeko **erronka berriek ordea gure eredu berrikusi eta ingurugiroari dagokion dimentsioa bertan txertatzera behartzen gaituzte**. Eredu berritu honek gidatu behar du, hain zuzen ere, Debagoiena iraunkor baterantz gure bailarak abiatu behar duen trantsizioa.

Debagoiena iraunkor baterantz trantsizioa gauzatzea erronka itzela da, eta erronka honi lankidetzaren bitartez soilik egin daioke aurre. Erakunde publikoak, eragile ekonomikoak, ezagutza eragileak eta gizarte zibitak elkarrekin jardun behar dugu **diagnostiko eta agenda partekatu bat oinarri hartuta**, ditugun aroko konplexuei soluzioa bilatzeko ahaleginean.

Konbentzituta gaude bailara honek baduela nahikoa indar eta anbizio berezko duen eta mundu mailan erreferentzia bihurtu den eredu komunitarioan sakontzearen bidetik XXI. mendeko **erronka berriei erantzun propio eta berritzaile bat emateko**. Argi dugu gure erroetan daudela mende berriak parez pare jarri dizkigun erronkei erantzunak bilatzeko gakoak. Komunitatearen ahalduntzetik eta lankidetzaren oinarri duen **berrikuntza ekosistema ireki baten artikulaziotik etorriko dira soluzioak**, eta hori da, hain zuzen ere, Debagoiena 2030 ekimenak egin nahi duen ekarpena.

Ez gatoz inor ordezkatzera, zubigintza egitera gatoz, pertsona nahiz erakundeen arteko konexioak sortzera, konbentziturik baikaude sarean lan egiteak gure indar eta gaitasunak biderkatzen dituela. Eragiteko eta egiteko bokazioa duen sarea da sustatu nahi duguna, ez soilik ezagutza edo esperientziak partekatuzera mugatuko dena. Horregatik, elkarren artean konektaturik eta elkar ekintzan arituko diren proiektu eta ekimen berritzaileak sustatu nahi ditugu, irudikatu dugun etorkizuneko ortzi-mugara iristeko beharrezkoak diren aldaketa sakonak eragiteko potentziala izango dutenak. Herritarrok daukagun mundu ikuskera eta balioetan ere eragin nahi dugu, aldaketa norberarengan hasten delako, ez dagoelako gizartea eraldatzerik gutako bakoitza aldatzen ez bagara.

2.050 urtean jarri dugu ortzi-muga, eta ordurako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bat irudikatzen dugu. Eta gure ekimenaren abizenak dioten moduan, 2.030 urtean jarri dugu tarteke lehen geltokia, ezin dugulako denborarik galdu, eta ordurako ortzi-muga horretara iritsi ahal izateko oinarriak jarrita izan behar ditugulako.

Debagoiena 2030 ekimena abiatzen dugun eragileen aspirazioa da etorkizuneko ikuspegi hau errealitate bihurtuko duen eraldaketa mugimendu bat sustatzea, mugimendurik gabe, ez baitago eraldaketa posibleirik. Hori dela eta, gure ekimenaren bereizgarri nagusia izango da komunitatearen etengabeko entzute eta ulertze sakon bat izango duela oinarrian, konbentziturik gaudelako harreman eta ezagutza sakon horretatik soilik eragin dezakegula pertsonen mundu ikuskera eta balioetan, ahaldundu ditzakegula herritarrak eta sortu ditzakegula mugimendua eragiteko adinako indarra izango duten eragile nahiz norbanakoen arteko konexioak.

Bukatzeko, adierazi nahi dugu ditugun erronka konplexuei nekez egingo diegula aurre erakunde ezberdinen nahiz herritarren konpromiso eta inplikaziorik gabe. Debagoienako erakundeak, eta bailaran bizi, lan eta ikasten duten herritarrak izan behar dira prozesu honen protagonistak, eta horretarako, hala nahi duen pertsona edo erakunde oro mugimenduaren parte egiteko ekimen eta bitartekoak martxan jartzera konprometitzen gara.



**D2030 BISIOA:** Lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2.050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena.



**D2030 MISIOA:** XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propio bat emango dien eraldaketa mugimendu bat sustatzea, eragile nahiz norbanakoen arteko konexioak eginez, pertsonen mundu ikuskera eta balioetan eraginez eta erronkei erantzuteko inpaktu esanguratsua izango duten ekimen eta proiektu berritzaileak bultzatuz.

# ADOSTU DUTE

## Lehen/ HITZARMEN HONEN ESPARRUA ETA HIELBURUA

1.1. Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek "D2030: Garapen iraunkorrerako sarea" izeneko ekimena sustatzeko konpromisoa hartzen dute.

1.2. D2030-en gobernantza ereduaren ezaugarri nagusiak kolektiboa eta irekia izatea dira, lidergotza partekatuetan oinarritua. Ondorioz, hemen deskribatuko den eredu, hastapen une honetan aurrera egiteko proposamena da; aspirazioa berriz, lankidetzaren parte diren eta izango diren eragile anitzen artean definitzen, esperimentatzen eta egokitzen joatea da, oinarritzko bi ezaugarri horiek babestuz.

1.3. D2030 eskualdeko eragile anitzen sarea izango denez, gobernantza ereduaren erantzukizun hori bermatuko da, administrazio publikoa, kooperatibak, sektore pribatua, herrigintza antolatua eta herritarrak gobernantzan inplikatu.

1.4. Gobernu Batzardea izango da D2030-en organo instituzional gorena, eta bertan egongo dira ordezkatuak ekimen honen sustatzaileak. Hauek dira, gaur gaurkoz, Gobernu Batzardearen funtzioak eta osaketa:

### Funtzioak:

- D2030 egitasmoaren bisio, misio eta norabide estrategikoa onartu, aberastu eta zaintzea.
- Urteko plangintza eta aurrekontua onartzea
- Zuzendaritza Teknikoaren osaketa eta funtzioak onartzea
- Nazioarteko aliantza estrategiaren onarpena eta jarraipena egitea
- Egitasmoaren jarraipena egitea eta honen inguruko erabaki garrantzitsuak hartzea
- Egitasmoaren jarduna nahiz inpaktua ebaluatu eta komunikatzea

### Osaketa:

- Debagoieneko Mankomunitatea
- Arrasateko Udala
- Bergarako Udala
- Oñatiko udala.
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Mondragon Unibertsitatea, Koop. E.
- Garaia Berrikuntza Gunea, Koop. E.
- Fagor, Koop. E.
- Ulma Taldea, Koop. E.
- Mondragon, Koop. E.
- Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.
- Saiolan
- Gizabidea Fundazioa
- Agirre Lehendakaria Fundazioa

### **Bigarren/ SUSTATZAILEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK**

- 2.1. Publikoki egitasmoaren sustatzaile moduan azaltzea, eta baliabide komunikatibo ezberdinetan erakundearen logoa erabiltzea baimentzea.
- 2.2. Gobernu Batzordean aktiboki parte hartu, gainontzeko eragileekin lankidetzan jardun eta adostutako egitasmoa eta lan ildoak bultzatzea.
- 2.3. Norbere erakunde barruan D2030 ezagutzera eman, zabaldu eta langileak bertan parte hartu dezaten ahalbidetu eta sustatzea.
- 2.4. Norbere erakundearen estrategia eta proiektuak D2030kin konektatzea.
- 2.5. Beste eragile batzuk egitasmoa batzeko aktiboki inplikatzea, konexioak sorutz eta egitasmoaren garapenean lagunduz.
- 2.6. D2030-en markoan garatuko diren dinamika ezberdinetan parte hartzea, eta norbere erakundearen parte hartzea eskatzen duten proiektuen garapenean aktiboki inplikatzea.
- 2.7. Erakunde bakoitzaren ezaugarri eta ahalmenen arabera, D2030 egitasmoaren prozesu nahiz portfolioren finantzaziorako ekarpen ekonomikoak egitea.

### **Hirugarrena/ EZAGUTZAREN JABETZA KOLEKTIBOA, LANKIDETZAREN ETA LEHIAREN ARTEKO OREKAZ**

- 3.1. D2030-en sortuz joango den ezagutzaren izaera irekia eta kolektiboa da.
- 3.2. D2030-en prozesu anitzetan sortzen den ezagutza egitasmoan parte hartze duten eragile guztiena, kolektiboa, izango da; ez da eredu klasikoagotan bezala, alde bakarrarena izango, finantzatzailearena adibidez. Beraz, eragile bakoitzak D2030-ra egingo duen ekarpena jabetza kolektiboan uzten du eta aldean ekarpenen baturatik sortuko den ezagutza kolektiboa izango da. Eta horrela adieraziko da prozesuaren osotasunari edo edozein azpiprozesuari buruz sortutako material edo argitalpenetan, egitasmoan inplikaturiko eragile batek edo gehiagok sortutakoa bada ere.
- 3.3. Era berean, hitzarmen honetako edozein eragile ezagutza hori bere aldetik ustiatzeko aukera izango du, jardunbide horren muga honakoa da: ezagutza kolektibo horrekin egingo dena ezingo dela inolaz ere esparru kolaboratibo honen aurka egin.

### **Laugarrena/ D2030-en SORTUTAKO EZAGUTZAREN ERABILERAZ**

- 4.1. D2030-en prozesu anitzetan sortutako ezagutza eta lana erabiltzeko baldintzen xedapena "D2030 egitasmoan sortutako ezagutza eta materialen erabilera eta hedapenerako irizpideak" dokumentuan zehaztuko dela (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena). Edozein kasutan, ezinbestekoa izango dela D2030-en testuinguruan sortutako ezagutzaren erabiltzen den bakoitzean egiletza aitortzea, 4.1. puntu honetan aipatzen den dokumentuan azalduko diren irizpideei jarraituta, eta irizpide horiek guztiz zehaztu bitartean Zuzendaritza Teknikoak ezarritakoei jarraituz.

### **Bosgarrena/ D2030 MARKA**

- 5.1. Markaren aplikazio marko orokorra "Markaren erabilera D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) xedatuko da.

### **Seigarrena/ LAN HIZKUNTZA**

6.1. PLATAFORMAko lan hizkuntza euskara izango da. Kanpo komunikazio eta harremanetan "Hizkuntza irizpideak D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) adostutako irizpideak erabiliko dira, beti ere euskarari garrantzia eta lehentasuna emanaz.

### **Zazpigarrena/ GENERO BERDINTASUNA**

7.1. PLATAFORMAko ekintza ezberdinetan genero oreka zainduko da eta genero berdintasunerako irizpideak aplikatuko dira.

7.2. Genero berdintasunaren aplikazio marko orokorra "Genero Berdintasuna bermatzeko irizpideak D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) xedatuko da.

### **Zortzigarrena/ HITZARMENAREN JARRAIPENA**

8.1. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtean behin baloratuko dituztela aldean artean hitzartutakoaren garapena eta emaitzak Gobernu Batzordean, eta behar izanez gero, hitzarmeneko klausuletan adostutako terminoak aldatzeko akordioa har dezaketela.

### **Bederatzigarrena / HITZARMENAREN INDARRALDIA**

9.1. Hitzarmen hau 2020ko uztailaren 22an jarriko da indarrean eta iraupen mugagabea izango du.


9.2 Hitzarmen hau sinatzen duten eragileak libre dira edozein momentutan Gobernu Batzordea utzi eta hitzarmenetik irteteko, beti ere 3 hilabeteetako aurrerapenarekin Gobernu Batzordean jakinarazita.

Maitte Anton Leno  
~~Debatgoieneko Mankomunitateko~~  
Lehendakaria


Gorka Antola Alberdi  
Bergarako Alkatea

Maria Ubarretxena Cid  
Arasateko Alkatea


Izaro Elorza Arregi  
Orizteko Alkatea




Markel Olano Arrese  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu  
Nagasia




Joxean Alustiza Usandizaga  
Fagor Koop. E. ko Lehendakaria



Oier Arantzegi Arañburu  
Ulma Koop. E.-aren ordezkaria




Zigor Ezpeleta Alberdi  
Mondragon Koop. E.aren ordezkaria



Iben Arantzabal Arrieta  
Goiena Komunikazio Taldeko Zuzendaria




Vicente Atxa Uribe  
Mondragon Unibertsitateko Errektorea



Idurre Atxizu Ullivia  
Garaja Parke Teknologikoa Koop. E.-aren  
ordezkaria



Francisco Javier Bikuña Olalde  
Saiolan S.A.-ren Zuzendari Orokorra



Juan Jose Ibarretxe Markuartu  
Agirre Lehendakaria Fundazioko  
Lehendakaria